

Kontratua eten eta Usabal kudeatzeko lizitazio berria atera du udalak

Datu ekonomikoak aldatu eta denbora luzez zerbitzua eman ez izana argudiatu du udalak orain arteko kontratua indargabetzeko; langileek lizitazioa aztertu ostean esango dute grebarekin jarraitzen duten //3



«Garai bakoitzean zer entrenatu behar den jakitea ezinbestekoa da»

IÑAKI ARRATIBEL KIROL MEDIKUA

Berrogei urtez aritu da kirol taldeekin eta kirolariekin lanean tolosarra, eta bere azken urtea izango du zeregin horretan; bere eskuetatik igaro den «kirolaririk indartsu eta osoena» Abraham Olano izan dela adierazi du //6



Gaur **ataria**rekin Etxebizitza gehigarria jasoko duzue Atarikideek

Azaroaren 25aren eta 30aren harira, denetariko jarduerak

Saiaz mankomunitateak pelikulak, tailerrak, ipuin kontaketak, mural margoketak edota tertuliak antolatu ditu Albizturren, Beizaman, Bidania-Goiatzen eta Errezilen //5



Babarrunaren Festa

Tolosa, Azaroak 18

babarrunak.eliker.eus

Amasa-Villabonako alkateak uste du aurreko lau urteetan gobernuan egindako lana ondo baloratu dutela herritarrek eta horregatik emaitzak hobetu dituela EH Bilduk, zinegotzi bat irabazita; udal taldean kide berriak ditu alboan eta esan du jende prestua dela, bakoitzak bere arlotik lanerako pronto dagoena

Jon Miranda

Bigarren agintaldia abiatu du Beatriz Unzue Esnaolak (Amasa, 1974). Udal taldean esperientzia eta berritasuna uztartzen direla azpimarratu du. Erronka berriei aurre egiteko prest agertu da.

Larrea auzoko parkea estaltzen hasi zarete. 2014an erabakitako proiektua orain gauzatu duzue.

Buruhauste handiak eman dizkigu proiektu horrek baina aurki errealtate bihurtuko da, espero dugu abendurako lanak bukatuta egotea. 2014an herritarrekin egindako parte hartze prozesuan erabakitako proiektua izan zen eta guretzako beti izan da lehen-tasuna. EAJk ez du behin ere proiektua begi onez ikusi eta udal gobernuan egon bitartean tiraderan gorde zuen. Guk asmoa berreskuratu eta aurreko agintaldian esleipena martxan jartzea lortu genuen hainbat oztopo gainditu eta gero. Harro gaude parkea estali ahal izatearekin.

Aurreko agintaldiko parte hartze prozesuan erabakitako proiektua ez zen gauzatu. Datoren lau urteetan egitea aurreikusten duzue?

Hori da gure asmoa, baina horretarako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra desblokeatu beharko dugu. Plan Orokorra publikatu zenetik herriko gune batzuk uholde arriskuagatik blokeatuta daude, baita Olaederra ondoko gune hori ere. Herritarrek erabaki zuten hor bolatokia eta estalitako padel pistak eraikitzea, baina oraingoz bertan ezin da inongo jarduketarik egin. Planean aldaketa egiteko esleipena egin dugu eta espero dugu urte bukaera baino lehen hastea lanketarekin. Luze jotzen duten kontuak dira eta ez dakigu astirik izango dugun agintaldi honetan proiektua gauzatzeko. Gure asmoa pausoak ematen joatea da eta horretarako behar beharrezkoa dugu Plan Orokorra aldatzea, bestela herri osoan ia ez dugu eraikigarria den gunerik izango.

Ezta etxebizitza berriak egiteko ere?

Ezta ere. Villabonak, hazteketan, Sacemgo bide aldera hazi beharko du, baina lur horiek ere Plan Orokorrean blokeatuta daude; esaten digutenez, ez da hain erraza izango gune hori desblokeatzea, baina bai ala bai irtenbide bat eman behar diogu eremu horri. Bien bitartean, lanak aurreratuko ditugu eta aurreko agintal-

«Harro gaude parkea estali ahal izatearekin»

BEATRIZ UNZUE AMASA-VILLABONAKO ALKATEA

Plan Orokorrean herriko zenbait eremu desblokeatzeko lana abiatuko du udalak, besteak beste etxebizitza proiektuak garatu ahal izateko



J.M.

dian erositako Graficas Leizaola zenaren eraikina 2024an eraitsiko dugu. Etxebizitza falta izugarria dago herrian eta egoera larria da, beraz, bien bitartean soluzioak bilatu nahi ditugu. Aurreko agintaldian herrian dauden etxebizitza hutsen azterketa egin genuen eta 300 baino gehiago azaldu zitzaizkigun. Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin nahi dugu, etxe jabeekin harremanetan jarri eta etxebizitza horietako gehientsuenak merkatutzeko, ahal bada alokairu bidez. Bestalde, gaur gaurkoz eraikinen behe-barrietan dauden lokalak etxebizitza bezala egokitzeko aukerarik ez dago eta azterketa bat egin nahi genuke aukera hori ikusteko.

Uste duzu aparkaleku falta dela herrian duzuen arazo nagusietako bat?

Bai, behar handia dago eta duela gutxi Altzin kalea moldatu dugu auto gehiago sartzeko. Malkar plaza azpiko aparkalekuetan parking publiko bat egiteko aukera ere aztertu dugu behin baino gehiagotan, baina horretarako,

ezertan hasi aurretik, egokitzen lanak egin behar dira, hezetasunagatik oso egoera kaxkarrean baitago lurrazpiko aparkalekua. Horrekin batera, Txermin auzokoa ere moldatuko dugu. Lanak datorren urtean hasi nahi ditugu. Kotxe gehiago aparkatzeko tokia egingo dugu eta kamioiak modu ordenatuan uzteko gune bat egokituko dugu. Aztertu dugu, baita ere, autokarabamentzat txokoren bat egin edo ez. Argiztapena hobetu eta txukundu egingo dugu eremu hori.

Aldi berean, Txermin auzoa eraberritzeko aukeraz hitz egin zenuten. Asmo horrekin jarraitzen duzue?

Bai. Gure sentsazioa da herriko bizitza guztia erdigunean kontzentratzen ari dela, batez ere Kale Berrian eta Kale Nagusian, elizatik Iru Aldeta pareraino. Hortik aparte bi muturretan dauden auzoetan geroz eta bizitza gutxiago dagoela iruditzen zaigu eta horri esku freno jarri nahi genioke. Txermin auzoa irisgarriagoa egiteko asmoa dugu eta horretarako auzotarrekin parte har-

tze prozesu bat jarriko dugu martxan. Nolako auzoa nahi duten galdetuko diegu bertan bizi direnei. Agian oinezkoentzat bakarrik gordetako kaleren bat behar da edo erdigune horretan dagoen plazari beste erabilpen bat eman. Ikusiko dugu. Auzotarrek erabakiko dute. Beste muturrean dagoen Etxeondo auzoan ere lanak egingo ditugu. Dagoeneko aurrekontuan gorde dugu diru sail bat horretarako.

Amasa da beste eremuetako bat. Bertako bizilagunak errepidea oinezkoentzat egokitzeko eskatzen ari dira.

Bai. Orain Villabonatik Amasara bidean, herri sarrerako gune horietan lanak egingo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak oinezkoentzat bide bat zabaltzeko, oso arriskutsu baitago eremu hori. Baina dena den, auzotarrek eta guk geuk ere behin baino gehiagotan esan dugu, ez bakarrik gune hori, Amasara doan errepide osoa moldatu beharra dagoela. Aldundiaren jabetzakoa da eta eskatu izan diegu bidea zabaltzeko. Hori eginez gero, guk konpro-

misoa hartzeko prest agertu izan gara, espaloiak eta bestelakoak egokitzeko. Oraingoz ez dugu adostasunik topatu eta epe motzean bilera gehiago egingo ditugu formula egoki baten bila. Hiru istripu gertatu dira azkeneko urtean, arriskutsu dago errepidea, eta zerbait egin beharra dago. Oinez, haur-kotxearekin edo gurgildun aulkiarekin ibili nahi duenak ezin du Amasara igo.

Herrian beste azpiegituraren baten falta sumatzen al duzue?

Askotan aipatu izan dugu kulture gune bat falta zaigula. Kultur ikastaroak eta ekimen guztiak leku bakar batean biltzeko toki bat izatea zoragarria izango litza-teke, baina oraingoz ez dugu aurreikusten horrelakorik. Hori bai, liburutegia berritzeko asmoarekin aurrera goaz. Gure asmoa da datorren ekainean lanekin has-te. Sei bat hilabete iraungo luke-te eta tarte horretan behintzat mailegu zerbitzua mantendu nahi genuke. Badakigu horrelako lanek eragozpenak sortzen dituz-tela, baina mereziko du emaitzak. 30 urtetik gora du liburutegiak eta urte guzti hauetan ez zaio egokitzapenik egin.

Feminismoari garrantzia eman nahi diozue udal taldean?

Bai. Hemendik gutxira berdintasun mahaia sortu nahi dugu. Herriko talde feministak prest daude parte hartzeko eta gizarte zerbitzuetako teknikari batek ere parte hartuko du bertan. Euskararen Ados mahaia edo hezkuntzarena dauden bezala, berdintasunezko gaiak jorratzeko sortuko dugu beste hau, eta erabakitzeko ahalmena izango du. Iraunkorra eta irekia izango da. Bestalde, gurea bezalako herri txikiek ez dugu berdintasun teknikaririk izateko ahalmenik, baina agintaldi honetan aztertu nahi genuke Aiztondo mailan, herri ezberdinei zerbitzua emango dien lanpostu bat sortzeko aukera dagoen ala ez.

Zer esango zenieke herritarrei?

Udaletxeko ateak zabalik dauzkatela nahi dutenean etortzeko. Eskerrak eman nahi dizkiet antolatzen dituzten gauza piloagatik, horrek ahalbidetzen baitu herria bizirik mantentzea. Mugimendu handia dago Amasa-Villabonan eta gu udaletik beti ondoan egongo gara laguntzeko prest. Gure eskutan dagoen guztia egingo dugu.

Usabalgo lizitazio berria onartu dute, oposizioaren abstentzioarekin

Kirol instalazioak kudeatzeko orain arte indarrean zegoen kontratua eten du Tolosako Udalak; langileek lizitazioa aztertu ostean jakinaraziko dute grebarekin jarraituko duten

Erredakzioa

Joan den ostiralean Andu Martine de Rituerto Tolosako alkateak iragarri moduan, kirol instalazioak kudeatzeko BPXport enpresarekin indarrean zegoen kontratua deuseztatu eta lizitazio berria martxan jarri du Tolosako Udalak. Herenegun arratsaldean egin zuten ezohiko batzarrean onartu zituen udalbatzak bi erabakiak.

Bi argudiorengatik eten duela kontratua adierazi zuen udal gobernuak: «Kontratuan jasotako datu ekonomikoak aldatzeagatik eta denbora luzez –eta etorkizunera begira ere, mugarik gabe– zerbitzua eman ez delako». Hain zuzen, ezohiko batzarrean, 2022ko ustiapen kontuak ere ez onartzea ebatzi zuen udalbatzak, EH Bilduren eta PSE-EE-ren aldeko botoekin.

Kirol instalazioak kudeatzeko lizitazio berriari ere onespena eman zioten udal ordezkariak, EH Bilduren aldeko botoekin; aldez, EAJk eta PSE-EEK abstentziora jo zuten (alderdi jeltzaleak hiru puntuetan jo zuten abstentziora). Gehienez ere bi urterako zerbitzu-kontratua izango da, trantsizio modura. Modu horretara, zerbitzuak bermatu nahi ditu udalak, etorkizuneko kudeaketa eredua definitzeko tarteazatearekin batera.

PSE-EEK ETA EAJK ABSTENTZIOA

Xarles Iturbe EAJko zinegotziak gaitzetsi egin zuen egungo gobernu-taldeak egoeren erantzukizun osoa enpresa emakidadunari leporatzea, «uztaileko osoko bilkuran zuzenean aurreko gobernu-taldeari leporatu zionean». Iturbek azaldu zuenez, gatazka konpontzeko «biderik gatazkatsuen» aukeratu du gobernu-taldeak. Izan ere, Iturberean ustetan, kontratua «adostasunik gabe suntsiaraztea» ziurgabetasunez betetako bidea da, «ez baita ziurra Batzorde Juridikoaren nahitaezko txostenak erabaki hori bermatzea». Gatazka epaitegietan amaituko dela



Tolosako udaletxeko batzar aretoa herritarrez beteta zegoela egin zuten herenegun ezohiko batzarra. J.ARTUTXA

azpimarratu zuen; «gainera, enpresa pribatuek asko pentsatuko dute udal honetako lizitazio publiko berrietara aurkezterako orduan».

EAJko zinegotziak «18 urte iraun duen kudeaketa eredu arrakastatsu eta emankorra» nabarmendu zuen: «Eredu hori erreferente izan da beste kirol instalazio batzuetarako, eta langileen lan-baldintzak hobetu zituzten hitzarmenak sinatzeko ere balio izan du». Lizitazio berriari dagokionean, «lankidetzak publiko-pribatuko eredu baten alde» egiten duela, «aurrekoan bezala» esan zuen Iturbek. Bertan, «indarrean dauden lan-hitzarmenak» hartu direla erreferentziatzen gaineratu zuen, «beraz, ez dago inolako hobe-kuntzarik langileen soldata-baldintzei dagokienez». Eta, enpresaren mozkin industrialak %3tik %6ra igarotzen dela ere nabarmendu zuen, «inolako azalpenik gabe, beraz, enpresaren irabaziaziaz bikoiztuz».

Halaber, bertako pleguei «bai ala bai» errekurtsioak jarriko zaizkiela esan zuen Iturbek eta lan-gatazka ikusita lizitaziora

enpresarik ez aurkezteko arriskuaz ohartarazi zuen; «eta baten bat aurkeztuta ere, enpresa horrek (BPXport edo beste edozein izan) egungoak hobetuko dituen lan-hitzarmen berri bat negoziatzeko bermerik ez dago».

Jose Mari Villanueva PSE-EEKo zinegotzia, bere aldetik, oso kritiko azaldu zen ELA sindikatuarekin eta elkartasuna adierazi zien Usabal kiroldegiko «11.000 bazkideei, kirol klubei, ikastetxeei, Bide Goxo tabernajate txeko langileei eta fisioterapeutei». Langileen lan-baldintzak mantentzeko sindikatuak funtsezkoak direla esan zuen, baina «ez dut ELAren jarrera ulertzen».

Usabalgo kudeaketa motaren alde ere egin zuen, hau da, emakida kontratua, hain zuzen, orain arte mantendu den kudeaketa mota. «Honelako funtzionamendua oso zabaldua dago udal administrazioetan, gobernatzen duen alderdia edozein dela ere, eta eredu arrakastatsua izan da hasieratik, bai kalitate aldetik eta baita ekonomikoki ere, udala eta enpresa onuradun atara direlako».

Bestalde, BPXport enpresari 10 urtetako lizitazioa eman izanak «onura» ekarri diola udalari esan zuen: «Urtero 120.000 euro ordaindu behar zion udalari, 1.380.000 euroko inbertsioa egin behar zuen, ezin zuen nahi adina etekin lortu muga bat duelako». 2023. urte hasierara joanda langileak lan-baldintzak negoziatzen hasi zirenekoa gogoratu zuen. «EAJ eta PSE-EE isilik egon ginen eta hedabideetan atera ginenean instalazioen itxiera neurrigabea zela esateko eta akordioaren alde egiteko izan zen». Une batean langileen eta enpresaren artean jarrerak gerturatu zirela gogoratu zuen, baina gauzak «okertu» zirela ELAk maiatzaren greba mugagabea iragartzean. «Guk esan genion ELAri itxiera baten ondorioak oso larriak izango zirela, baina ez genuen itxiera gelditzeko lortu». ELAren jarrera gaitzetsi zuen eta galdetu zuen ea zergatik zabaldu zituen, zabaldua ko mezuak hauteskunde garaian: «ELAk interesa zuen gobernu aldaketa bat egoteko?». Behin hauteskundeak pasa eta udal gobernuak aldatuta, une ho-

netan irtenbide «bakarra» lizitazio berria ateratzea dela esan zuen, baina Villanuevaren ustez ez da irtenbide ona: «ziurrenik dugun aukera bakarra da. Udalak ez badu hau egiten, noiz arte luzatuko da? Ez da irtenbide ona, horregatik abstenitu naiz».

PLEGUEN ZAIN

Bestalde, langileek azaldu duteenez, lizitazioaren pleguak publiko egitea ari dira itxaroten, eta horiek aztertu ostean hartuko dute erabakia. Alegia, orduan erabakiko dute grebarekin jarraituko duten ala bertan behera utziko duten.

SEI HILABETEZ GREBAN

2010. urtean Gipuzkoako kiroldegietako langileek lan-hitzarmen probintziala sinatu zuten. 2012an bukatu zen hitzarmen hori, eta orduan hitzarmena berritzeko negoziazioak ez zuten aurrera egin. Orduetik izoztuta egon da hitzarmen probintziala, eta, azken 11 urteetan kiroldegi bakoitza bere baldintza propioak negoziatzen aritu da. Horieta bat izan da Tolosako kiroldegia. Bertako langileek beren hitzarmen propioa sinatzea lortu zuten. 2020. urtetik ordea, hitzarmen hori berriro gabe zuten, eta kiroldegia kudeaketan enpresa aldaketa egon zenez, atzeratu egin ziren negoziazioak. 2023ko urtarrean hasi zituzten elkarriketak lan-ituna berritzeko.

Langileek hiru eskari nagusi egin zituzten enpresari: soldata KPIaren arabera eguneratzea, kiroldegiko klaseen prestakuntzarako baliatzen dituzten orduak aitortzea, eta lan-kategoriak zehaztea. Negoziaketek, baina, ez zuten aurrera egin, eta langileek enpresaren «jarrera arduragabea» ikusita, martxoan lehen lanuzteak egin zituzten. Ondorioz, martxoaren 16tik 26ra bitarte itxita egon ziren kirol instalazioak. Enpresaren eta langileen arteko negoziazioak «blokeatuta» jarraitzen zuela eta, maiatzaren 8an greba mugagabea hastea erabaki zuten.

Herriko kale-katuak elikatzeko taldea osatuko dute Lizartzan

Lizartzako Udalak kalean dauden katuak identifikatu eta kudeatzeko protokoloa martxan jarri du; herritarrekin gaur egingo dute gaiaren inguruko bilera 18:30ean, udal aretoan

Leyre Carrasco

Azken urteetan Lizartzan kaleko katuen «kontrolik gabeko ugari-tzea» izaten ari direla adierazi du Iñaki Azpiroz bertako alkateak. Arazo horren zergati nagusietako bat katuen ugaltzearen gorkada dela gehitu du: «pentsa, hamar katakume batera jaiotzen dira, eta horiek ez daude inoren esku, abandonatuta daude. Guzti horren arduraduna udala izaten da eta gai honi heldu egin behar genion nolabait».

Edonork elikatzen baditu «arazoa areagotu» egiten dela dio Azpirozek. Izan ere, herritarrek kale-katuei herriko ostatuaren atzean jana emateko ohitura hartzen ari zirela kontatu du, «eta katuak sukaldearen ondoan egotea, arazo moduan hartzen dugu, animalia hauen kontrol ezak hainbat eta hainbat osasun arazo ekar ditzakeela uste baitugu».

Egoera ikusita, Lizartzako Udalak, beste udalerriekin batera, animalia etxekotuen inguruko hainbat protokolo eta neurri jarri ditu martxan. Gauzak honela, herriko kale-katuak identifikatu, elikatu eta kudeatzeko taldea osatuko dute.

Ekimenaren nondik norakoak gaur azalduko dituzte 18:30ean udal aretoan egingo duten bilera informatiboan. Era berean, alkateak kale-katuen gaineko kezka eta interesa duten herritarrek



Kale-katu bat jaten. LEYRE CARRASCO

animatu nahi izan ditu bileran parte hartzera.

LEGEZKO JANARI GUNEAK

Animalia etxekotuen babeserako Euskal Legeak, ekainak 30eko 9/2022 legearen 28. artikuluko laugarren puntuak adierazten duen moduan, «administrazioak

espresuki autorizatutako pertsonak salbu, debekatuta dago herritarrek kaleko katuak elikatzea».

Ondorioz, Lizartzako kaleetan aurkitzen diren katuei jaten ematea «legez» debekatuta dagoela azpimarratu du alkateak, «baina trantsizio horretan herrian egoera honi aurre egiteko

norbait prest balego, eskakizun hori baimentzeko aukera izango dugu».

Horregatik, kale-katuak identifikatzeko, elikatzeko eta kudeatzeko taldea osatzeko asmoa du Lizartzako Udalak. Taldea osatuta, herriko gune ezberdinak aztertu eta egokiena zein den auke-

ratuko du, ekimenean parte hartzen duten herritarrek bertan kale-katuak elikatu ditzaten. «Katu horiek ugaritzen doaz eta jana herriko edozein txokotan botaz gero, kalteak eragin ditzake eta egoera murritzatu beharrean gaude», adierazi du Azpirozek.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€
HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



Albztur, Beizama, Bidania-Goitz eta Errezilgo emakumeak, joan den martxoan, Bidania-Goitzen. SAIAZ MANKOMUNITATEA

Mobilizatzera dei egin du Saiaz mankomunitateak

Hilabete osoan denetariko ekimenak antolatu dituzte hainbat herritan; azaroaren 25ean eta 30ean, berriz, mobilizatzera dei egin dute

Erredakzioa

Ongi jakina da Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna dela azaroaren 25a eta, dagoeneko, aski zabalduta dago, baita ere, hilaren 30eko greba orokor feministarako deialdia. Albztur, Beizama, Bidania-Goitz eta Errezil biltzen ditu Saiaz Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, eta aipatu egunen harira denetariko jarduerak an-

tolatu ditu herri horietan hilabete osorako.

Mankomunitateko gizarte langilea da Elena Rikondo eta uste du «oso zaila» dela jendearengana iristea mobilizaziorik gabe: «Mobilizatzek, pixkana, astindu egiten ditu egitura guztiak; entzunarazi egiten ditu aldarrak, eta ordu-arte konturatu ez denak ere ikusiko du zer bait». Bide beretik, ekimen horien birtatez «presioa» eragin daiteke-

lakoan dago, eta hori izan daitekeela bidea «agenda politikoe-tan» eragiteko eta gauzak aldatzeko.

KOPURUTIK KALITERA

Mankomunitatean aztertu egin dituzte 2017tik 2022ra bitartean emakumeenganako indarkeriarekin lotutako datuak, eta Rikondok nabarmendu du datu horiek Ertzaintzara, osasun zerbitzuetara eta gizarte zerbitzuetara iri-

tsi direnak direla; baina hortik kanpo ere «kasu asko» gertatzen direla.

Datuak aztertzeak harago, ordea, arreta «lanketa kualitatiboetan» jarri dutela ere azaldu du. Hain zuzen, 2021 eta 2022 urteetan indarkeria matxistaren aurkako protokoloa prestatzen aritu ziren eta ikasturte honetan, berriz, hainbat esparrutako profesionalekin lan egiten aritu dira. Eta horrek zer esan nahi duen?

Bada, emakumeenganako indarkeriarekin lotura duten hainbat arlotako langileekin egin dutela lan. Kasurako, zenbait medikurekin aritu dira lantzen nola hauteman kontsultara joaten dena indarkeria jasaten ari dela. Rikondoren hitzetan «gakoa ez da igartzea», baizik eta profesionala gai izatea «konfiantzazko giroa» sortzeko, kontsultara joaten denak segurtasuna izan dezan zer gertatu den kontatzeko.

Gizarte langilearen aburuz «pixkana eta mantso» bada ere, aldatzen ari dira zenbait gauza. Esate baterako, aipatu du lehen «oso tapatuta» zeudela berdintasunaren inguruko gaiak; eta, gaur egun, berriz, errazagoa dela indarkeriaz edo zaintzaz hitz egitea, besteak beste.

EGITARAUA

Azaroak 19

Bidania-Goitz. Pelikula proiektzioa.

Azaroak 22

Errezil. 10:00etan, frontoian, ipuin kontaketa ilustratua Beatriz Egizabalen eskutik. Albzturko, Bidania-Goitzeko eta Errezilgo LH mailako ikasleei zuzenduta.

Azaroak 24

Albztur, Bidania-Goitz eta Errezil. Tratu onak lantzeko tailerrak eskoletan.

Azaroak 23 eta 28

Formakuntza. Mankomunitateko ordezkari politikoeekin formakuntza genero ikuspegiaren inguruan.

Azaroak 25

Bidania-Goitz. 16:00etatik 18:00etara *Ez dadin gure bizitza eten* bideoaren proiektzioa eta kafe tertulia liburutegian. 18:00etatik 19:00etara mural margotzea. 19:00etan, elkarretaratzea frontoian.

Azaroak 30

Euskal Herria. Greba orokor feminista.



Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Caceres Patrimonio
de la H
partida ikusteko

Azaroak 19, igandea
17:00etan
Angulas Aguinaga Arenan



Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Club Ourense Baloncesto
partida ikusteko

Azaroak 24, ostirala
20:30ean
Angulas Aguinaga Arenan

zozketak

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu



Euskarazko bertsioaren estreinaldia

Eulí Dantza
antzezlan

Azaroak 19
igandea
19:30ean
Villabonako
Gurean

Bi Atarikiderentzat
launa sarrera ditugu



Txirri, Mirri eta
Txiribiton pailazo
taldeak eskainiko duen
Pailazo ikuskizuna

Azaroak 18
larunbata, 17:00etan
Tolosako Leidorren

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Unai Ugartemendia Tolosa

Berrogei urte baino gehiago daramatza Iñaki Arratibel (Tolosa, 1959) kirol medikuak hainbat kirol talderekin eta kirolariekin lanean. Bere azken urtea izango du zeregin horretan, nahiz eta ez duen dena uzteko asmorik. Erretiroaren atarian, bere ibilbidea errebasatu nahi izan dugu. Hitz errazekoa, eta aho bizarririk gabe hitz egiten duen horietakoa da.

Zergatik aukeratu zenuen medikuntzako ikasketak egitea?

Txikitatik izan nuen argi medikua izan nahi nuela, eta, aldi berean, kirola ere uztartu nahi nuela. Ikasle ona nintzen, eta Eskolapioetan ikasten nengoen bitartean, bertan zegoen apaiz batek matematikako ikasketak egin behar nituela esaten zien gurasoei, baina, haiek argi esan zien, nik nahi nuena ikasiko nuela. Eta horrela izan zen. Aukera ezberdinak hautatu behar izan nituen, baina oso pozik nago hartutako erabakiarekin. Askok ikasi beharko nuela banekien, eta garai haietan gainera kanpora atera beharra zegoen. Nire kasuan, Valladolidera (Gaztela eta Leon, Espainia) joan behar izan nuen. Ondoren, kirol medikuntzan barneratu nintzen, eta aukera izan nuen Alemaniara joateko. Bertan pasa nituen urte batzuk, eta asko ikasteko aukera izan nuen.

Nola gogoratzen dituzu unibertsitateko urteak?

Lehen urteak zailagoak izan ziren, baina laugarren maila egitera jada Donostiara etorri ginen. Lehen promozioa izan ginen. Oso urte interesgarriak izan ziren. 1975. urtean hasi nituen ikasketak unibertsitatean. Artean hamasei urte besterik ez nituen. Karrera hasi eta hilabete gutxira Franco hil zen, baina bertan gelditzea erabaki genuen. Garai hartan, hiru mila euskaldun geunden bertan, eta gogoan daukat egindako lehen asanbladaren, mila pertsona inguru elkartu ginela. Bertan, ordurako, Anjeles Iztueta zegoen irakasle gisa, eta bertan ikusi ninduen, nik ere irakasle bezala hasi behar nuela esan zidan. Ikasle eta irakasle aritu nintzen aldi berean. Eta halaxe hasi nintzen euskara ikasi nahi zuten hasiberriekin. Oso garai intentsoa izan zen hura.

Ondoren Alemaniara joateko hautua egin zenuen. Nondik sortu zitzaizun aukera hura?

Ikasketak amaitu, eta lanean urte pare bat egin eta ezkondu ondoren, Alemaniara joateko

«Oso pozik nago egin dudan ibilbidearekin»

IÑAKI ARRATIBEL KIROL MEDIKUA

Medikuntza ikasi ondoren, Alemaniara joan zen kirol medikuntza ikastera, eta ordutik, berrogei urte baino gehiago egin ditu kirol talde eta kirolariekin lanean



aukera sortu zitzaidan kirol medikuntza ikastera. Pedro Larraiozen eta Matthew Hermans txirrindulari ohiaren bidez, lehenik Maastrichtera (Herbehereak) joateko aukera aztertu genuen, baina segituan esan zidaten hantxe ez zidatela utziko sartzen. Hura eta gero hitz egin zidaten Alemaniara joateko aukeraz. Alemanieraz hitz egiten ez nuenez, Koloniara joan beharrean, onena Friburgera joatea zela gomendatu zidaten.

Zertan hasi zinen lanean?

Lehenik, Alemaniera ikasi behar nuela esan zidan nagusiak! Hilabete pasa nuen ikastaro trinko batean, eta zerbait menderatzen

nuela ikusi zutenean, lanean jarri ninduten. Denetik egitea tokatu zitzaidan hilabete batzuetan. Konturatzeko ardurak hartzen hasi nintzen. Bi urte igaro nituen bertan, eta orduan hemen oraindik ezagutzen ez ziren kontzeptu askorekin itzuli nintzen Tolosara. Master bat egitearen antzekoa izan zen egonaldi hura.

Irakasle ere izan zara urte luzez Gasteizko Soin Hezkuntzako Euskal Erakunde.

Bai, 1989 urtean hasi nintzen eta gaur egun ere bertan jarraitzen dut. Hogeita hamar urtetik gora eman ditut bertan. Bertatik ikasle asko pasa dira, eta oso oroitzapen

pen onak dauzkat urte hauetaz guztiez.

Euskal Herriaren gehienbat, ezagun, Abraham Olanoren prestakuntza eramaten zenuelako egin zinen.

Alemanian emandako bi urteetan, bertan txirrindulariekin lanean egiten zuen mediku batekin ordu asko pasa nituen lanean, eta jada jantzita nentorren gai horretan. Gerora, Olano etorri zitzaidanean, hutsetik hastea bezala izan zen. Urte askotan lanean egin genuen, eta lortutako emaitzak hor daude. Zortzi edo hamar urtetako lana izan zen orotara, eta lortutako garaipenak ez ziren kasualitate hutsa izan, lanaren aitortza bat besterik ez zen izan.

Munduko txapeldun izatera ere iritsi zen Olano 1995ean errepideko lasterketan. Nola bizi izan zenuen garaipen hura?

Oso ondo gogoratzen dut egun hura! Diario Vascoren egoitzan jarri zuten pantaila erraldoian ikustera gonbidatu ninduten, Olanoren anaia den Andonirekin, eta beste lagun batzuekin batera. Izugarria izan zen! Bertan zegoen baten batek azken bost kilometroetan izan genituen tentsio uneak grabatu izan balitu, pelikula bikaina osatuko zukeen (barrezka). Zer izan zen hura! Urduritasun handiarekin bizi izan genituen azken kilometroak. Oso luzea egin zitzaidan gorpila zulatuta egin zuen azken kilometro eta erdia. Dena pikturara joango zela pentsatzen nuen, baina zorionez helmugara iritsi zen. Historikoa izan zen!

Zer suposatu zuen garaipen hark zuretzat?

Nik banekien lanean handia egin genuela, baina mundiala jokatu eta bi hilabetera konturatu nintzen zenbaterainokoa izan zen. Nirekin hasi zenean, lehen entrenamenduetan ikaragarri sufritzen zuela aitortu zidan Karmele bere emazteak. Txikituta iristen omen zen etxera! Baina lanean jarraitu zuen. Bera pistatik zetorren, eta kilometroak igo behar zituen bere helburuak betetzeko. Hori lortzeko asko entrenatzea tokatu zitzaion. Garai bakoi-tzean zer entrenatu behar den jakitea ezinbestekoa da.

Garaipenak bai, baina txirrindularitzaren alde iluna ezagutzea ere tokatu zitzaizun oso gertutik.

Bai, 2003-2004 denboraldian izan zen. Denboraldi berdinean taldeko hiru txirrindularik eman zuten positibo dopinarekin. Lehena, Oscar Camenzind suitzarra izan zen, eta Donostiako Klasikoaren bezperan aitortu zidan. Berak, Atenasko Olinpiar Jokoe-tan irabazi egin nahi zuen, eta EPOarekin zebilela onartu zidan. UCikoek egindako kontrol batean harrapatu zuten. Esan zidan, lasai egoteko, nik ez nuela zer ikusirik, eta zuzendariari ere esana ziola. Oso harreman ona neukan berarekin, eta nirekin behintzat oso zintzo portatu zen.

«Abraham Olano izan da nire eskuetatik pasa den kirolaririk osoena»

Pena handia eman zidan. Bere azken urtea zen profesionalean, eta horrela erretiratu behar izate... Beste bien kasuan ere ez nuen zer ikusirik. Tyler Hamiltonek eta Santi Perezek ere positibo eman zuten irailan, baina biak Eufemiano Fuentes medikuarekin aritzen ziren. Oso urte gogorra izan zen! Urte bakarra egin nuen, eta uztea erabaki nuen.

Zure eskuetatik pasatako kirolari guztien artean aipamen bereziren bat?

Askok izan dira nire eskuetatik pasatako kirolariak. Agian, denen artean fisikoki indartsuena eta osoena, Abraham Olano izan da. Saiatuena, Imanol Rojo iraupen eskiazailea. A zer meritua duen Imanolek! Gutxien zainduta etekin handiena ateratzen zuen kirolaria, Mikel Larrañaga aizkolaria. Plaza gizona da Larrañaga! Ezin aipatu gabe utzi Mieltxo Saralegi harri-jasotzailearekin egin behar izan nuen lana. Dena berria zen niretzat, eta erronka handia izan zen hura.

Hainbeste urtetan lanean ibili ondoren, asmatuko duzu lasai bizitzen?

Ikusi egin beharko da (barrezka). Behin bakarrik egin ditut hamabost egun jarraian oporretan, eta, orain, agian, arraroa egingo zait. Emazteak bai, eskertuko du benetan nire erretiroa. Ez nuke dena kolpetik utzi nahi, eta, gauza batzuekin jarraituko dut, baina egunerokotasunaren atseden gustura hartuko dut. Pentsatzen dut asmatuko dudala.



Bidaniako gazteak ahalegin betean, larunbatean. MAIDER GINEA

Ezustekoa eman dute errezildarrek giza proban

Erredakzioa Bidania-Goiatz

Giza proba desafioa egin zuten larunbatean Bidaniko eta Errezilgo gazteek, azken hauen herrian, eta etxekoek irabazi zuten. Eguraldiak ez bazuen hainbeste lagundu ere, ikusmina sortu zuen larunbatean Errezilen egindako giza probak. Bertako gazteak eta Bidanikoak nor baino nor aritu ziren, eta azkenean errezildarrek irabazi zuten. Bidaniarrak ziren faboritoak, bai-

na ezustekoa eman zuten etxekoek eta proba ondo prestatu zutela erakutsi zuten.

20 minutuz 600 kiloko harria mugitu behar zuten ahal zituzten plaza gehienak eginez. Lehenengoak bidaniarrak izan ziren, eta 60 plaza, zinta bat, hiru metro eta 76 zentimetro egin zituzten. Ondoren errezildarren txanda izan zen, eta 64 plaza, 3 zinta, 4 metro eta 40 zentimetro egin zituzten. Jendetza elkartu zen proba ikusteko Errezilgo plazan.

Lauburu Ibarraren Kopako partidarako sarrerak eskuragarri

Erredakzioa Ibarra

Lauburu Ibarra Errege Kopako partida jokatu du datorren asteartean, hilak 21, Belabietan. Partida 20:00etan hasiko da eta lehen mailan jokatzen duen Xota nafarren aurka izango da norgehiagoka.

Sarrerak eskuratzeko aukera zabalik dago. Bazkideek sarrera

doan izango dute, baina beharrezkoa dute sarrera eskuratzea, eserleku kopurua kontrolpean izateko. Bazkide ez direnen artean, 18 urtetik gorakoek 5 euro ordainduko dute, 13 eta 18 urte bitartekoek 2 euro eta 12 urte edo behekoek doan izango dute. Sarrera Internetez eskuratu daiteke labur.eus/ScKCU esteka erabiliz.

Ikaztegieta Herri Krosak lasterketa motza izango du aurten

Larunbatean egingo da Ikaztegieta XXXII. Herri Krosa; 10 kilometroko ibilbideaz gain 4,5 kilometrokoa izango du

Imanol Garcia Landa Ikaztegieta

Berrikuntzekin dator aurtengo Ikaztegieta Herri Krosa. 32. aldiz izango du aurten, eta herrian ondo errotuta dagoela adierazten du horrek. 10 kilometroko ohiko ibilbideaz gain, 4,5 kilometroko lasterketa motza prestatu dute. Uxer Mozo antolakuntzako kideak azaldu duenez, «jendeak esan izan digu 10 kilometro egitea gehiegi izaten dela, eta distantzia hori luzeegia iruditzen zaienentzat pentsatu dugu 4,5 kilometrokoa ere antolatzeara».

Larunbat honetan egingo da herri krosa, eta 16:30ean emango zaie hasiera bi ibilbideei. «Ibilbidea ez dugu aldatuko», esan du Mozok. «Ohiko ibilbidea egiten dutenek hiru itzuli egingo dituzte, eta motza egiten dutenek bigarren itzulia hasi eta helmugatik pasatzean bukatuko dute». Korrikalariak dortsal kolore ezberdinengatik berezitu dira. Ohi bezala, herriko haurrentzako lasterketa ere prestatu dute, eta hori 16:15ean hasiko da.



Iazko Ikaztegieta Herri Krosaren une bat. N.R.A.

ko lasterketa ere prestatu dute, eta hori 16:15ean hasiko da.

Parte hartu nahi duenak aurretik izena emateko aukera izango du Herrikrosa.eus webgunean sartuta. egunean bertan ere izena eman ahal da, baina antolakuntzatik eskertzen dute ahal dela izena aurretik ematea.

Sari banaketari dagokionez, bi lasterketetan lehenengo hiru emakumezkoek eta gizonezkoek

jasoko dute saria, eta baita lehen emakumezko eta gizonezko herriarrek. Horrez gain, zozketa bereziak izango dira, babesleek emandako produktuekin. Bestalde, jatekoa eta edatekoa izango da proba bukatu eta gero.

Herrigintza elkarteak antolatzen du herri krosa, eta urtero bezala, egun hori aprobetxatuko du elkarteko bazkideen afaria egiteko.

Harri handien Gipuzkoako txapela jokoan, Zizurkilen

Erredakzioa Zizurkil

Harri Handien Gipuzkoako Txapelketa izango da jokoan larunbat honetan, Zizurkilen. Sei harri jasotzailek parte hartuko dute Intxaur pilotalekuan egingo den saioan, 18:00etan hasita: Xabier Aranburu, Aimar Galarraga, Gari Garmendia, Imanol Royo, Jon Unanu eta Julen Diaz. Azken hori arabarra da eta gonbidatu bezala ariko da parte hartzen. Sarrera doan izango da.

Lau harrirekin aritu beharko dute kirolariak: 200/175 kiloko laukizuzena, 200/175 kiloko zilindroa, 150 kiloko kubikoa eta



Jon Unanue, iazko txapelketan. J.A.

125 kiloko bola. Harri bakoitzarekin 2 minutuko saio bana egingo dute harri jasotzaileek. Guztira kilo gehien jasotzen duenak irabaziko du.

Aurtengoan ez da lehian ariko Jokin Eizmendi iazko txapelduna, lesionatuta baitago. Berez bigarren geratu zen zarautzarra, baina txapela jantzi zuen Urdax Magunazelaiak dopinarengatik zigortua izan zen, eta Eizmendi-arentzat izan zen azkenean iazko txapelketa. Beraz, oso lehia ederra izatea espero da larunbat arratsaldean Zizurkilen, ez baitago aurtengorako faborito nagusirik.



OSTEGUNA, 2023KO AZAROAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain,
Belautza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



berria

BERTAKO
HEDABIDEAK



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

OSTEGUNA 16

AGENDA

Deialdiak

Aduna. Eskolako historia eta ibilbideasolasaldia, elizan, 19:00etan.
Ibarra. Atzerritartasun tramiteak, kultur etxean, 18:00etan.
Ikaztegieta. Gure Plaza Txopieketua, udaletxean, 17:30etan.
Irura. 250 egunez, bizikleta bizimodu. Alegiatik Boli Kostara, eskolan, 19:00etan.
Lizartza. Kale katuak identifikatu eta elikatzeko, bilera, udaletxean, 18:30etan.
Orendain. Aho bete jolasipuin kontaketa. Liburutegian, 17:30etan.
Tolosa. Oso latza izan daliburuaren aurkezpena. Kultur etxea, 19:00.
Zizurkil. Urrutitik zetorren neskatoka ipuin kontaketa, 18:00etan.

Zinema

Tolosa. Godland filma Leidor aretoan, 20:30etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena.
09:30. Kirol tertulia. Kirolak.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
20:00. Beste munduko musikak. Musika saioa.

28 KANALA

10:30. Landara.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
15:00. Denbora da poligrafo bakarra.
20:00. Letagin kontzertua.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Telmo Lazkano eta Maitane Ormazabal elkarriketa.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Oscar Etxe-beste Etxarri. Gernikako Arbolaren lorategiak, 3. 943 65 10 40.
TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro kaxkarragoa. Goizean hodeiak oso ugariak izanagatik euria urria izango da eta nahiko ateri eutsiko dio. Arratsaldean hodeiak are gehiago trinkotuko dira eta euri gehixeago izango da, bereziki ilunabar, gau partean. Haizeak goizean hego-mendebaldetik joko du, arratsaldean ipar-mendebaldera aldatuz. Tenperatura igo egingo da, 18-20 graduan joz goia.

Bihar. Jasotzera egingo du. Goizean hodeiak ugariak izango dira eta oraindik euri pixka bat izango da. Hala ere, oso gutxi botako du. Eguerditik aurrera ateri geratuko da eta os-tarte batzuk zabalduko dira, nahiz eta, ez duen erabat garbituko. Haizeak goizean ipar-mendebaldetik joko du, arratsaldean ipar-ekialdetik finkatuko delarik. Tenperatura jaitsi eta nekez gairatuko du 14-16 graduak.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Eskola Txikien festaren logoa aurkeztuko dute

Datorren urteko Eskola Txikien festa antolatzeko lanetan ari da Adunako eskola; igande goizean aurkeztuko dute festaren irudia

Jon Miranda Aduna

Bizirik lelopean azaroaren 16tik 19ra kultur astea ospatuko dute Adunan. Askotariko ekitaldiak izango dituzte, tartean, larunbatean herriko gazteen eguna izango dute. Bihar, berri, Adunako eskolako historia eta ibilbidea ezagutzeko solasaldia eta argazki erakusketa izango dute, eta igandean, Eskola Txikien festaren logoa aurkeztuko dute.

Izan ere, datorren urteko Eskola Txikien festa antolatzeko lanetan murgilduta dabil Aduna, joan den ekainean Lizartzan lekukoa hartu zutenetik. Lehen urratsa festa irudikatu duen logoa aukeratzea izan da eta igande honetan aurkeztuko dute. Eguraldi ona bada plazan eta euria egiten badu frontoian egingo dute ekitaldia 11:30ean hasita.

Ekainean lehiaketa antolatu zuten festa irudikatuko duen logoa aukeratzeko. Igandean irudia erakutsiko dute eta bere esanahia azaltzearekin batera, aukeraketaren nondik norakoak jakitera emango dituzte.

Adunako Eskola Txikien festaren harira prestatutako materiala ere sagai jarriko dute, eta aurkezpenaren ondoren, pintxoak izango dira. Loatzo musika eskolako bandaren kontzertua ere izango da tartean.



Lizartzarren eskutik jaso zuten adunarrek ekainean, festaren lekukoa. L.C.

KULTUR ASTEA

Azaroak 16, osteguna

19:00. Adunako eskolako historia eta ibilbidea herri solasaldia eta argazki erakusketa.

Azaroak 17, ostirala

19:00. Oh-Perazirku eta umore ikuskizuna, frontoian.
21:30. Euskal Herriko XV. Mus Txapelketa Txulobin. Adunako kanporaketa, Euskal Herriko Mus Federazioak antolatuta.

Azaroak 18, larunbata

Gazte Eguna
11:30. Herri jolasak.
14:00. Gazte bazkaria.
17:30. Toka txapelketa.
Ondoren. Elektrotxaranga.

Azaroak 19, igandea

11:30. Eskola Txikiak Jaia 2024 logo aurkezpena, plazan.
Ondoren. Pintxoak.
12:30. Loatzo bandaren emanaldia.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM

